

Mugikortasun eta garraio iraunkorra

Naturaren ezaugarriak garrantzitsuenetakoa eboluzioa da, eta gizarteak ere, naturaren parte den heinean, eboluzionatu egiten dira denborarekin. Zentzu horretan, 100 urte baino apur bat gehiagoan, ibilgailu pribatua dirudunen esku zegoen luxua izatetik gure eguneroko beste tresna arrunt bat izatera pasa da. Egoera berri honen ondorioz, mugikortasuna kudeatzeko erronka planteatzen da, gizarte iraunkorragorako bide gisa.

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

AGENDA 2030



 **GARAPEN
IRAUNKORRERAKO
HELBURUAK**




Ba al zenekien...

irailaren 16tik 22ra Europako mugikortasun iraunkorraren astea ospatzen dela?

ZEINTZUK DIRA EGUNGO MUGIKORTASUNAK ERAGINDAKO ARAZOAK?

Motordun garraioak gehiegi erabiltzeak trafikoa eta kutsadura baino gehiago eragiten dute.

Gaur egungo mugikortasunaren arazo eta konponbideak



Iturria: Geuk egindakoa



Hiri errepideetan auto-pilaketak izatearen ondorioz, zenbait garraio bide publikok eraginkortasuna galtzen dute, ibilbideak egiteko denbora gehiago behar izaten dutelako (ez da horrela gertatzen tren, tranbia eta metroaren kasuan).



Kutsadura atmosferikoa eta akustikoa ere areagotzen dira, hala ere, neurri erraz batzuk ezarrita murriztu egin daitezke (ibilgailuentzako filtroak, pantalla akustikoak...).



Mugikortasun arazoak lurralde-antolamenduarekin ere lotuta daude. Hiriak gero eta handiagoak dira, batez ere eraikinak dentsitate txiki-koak direnean (hiri-inguruko urbanizazioak), eta halakoetan, hiriko erdigunearen, lantokiaren eta etxebizitzaren arteko distantzia handitu egiten da.

- Horren ondorioz, distantzia laburrak egiteko ibilgailu pribatua erabiltzen da gehiago; dena dela, arazo hori konpondu egingo litzateke garraio publiko sistema eraginkor bat jarrita eta bizikleta erabiltzeko zein oinez ibiltzeko ohitura sustatuta.


Edozelan ere, ezin da ukatu autoa garraiobide erabilgarri, azkar (auto-pilaketetatik kanpo) eta malgua denik, gure behar eta nahien menpe baitago. Ibilgailu pribatuen arazoa ez da horiek erabiltzea, gehiegi erabiltzea baizik.

NOLA MUGITZEN GARA?

2011ko Euskal Autonomia Erkidegoko Mugikortasunaren azterlanak jasotako datuen arabera, Bizkaiko barne-desplazamenduen %48,6 mugikortasun okupazionalak eragindakoak dira; lana da arrazoi nagusia (%36,4), aisialdiak (24,5%) eta gestio familiar/pertsonalek (%13) jarraituta. Mota horretako desplazamenduak egiteko, herritar gehienek oinez egitea aukeratzen dute (%47,8) eta, bigarren aukera gisa, automobiler (%31,1). Azpimarratzekoa da trenbideko garraio kolektiboak joan-etorri fluxu horiek konpontzen dituela, Bizkaian %10,5eko kuotara heltzen baita, EAEko altuena.




Bizkaian (2011) barne-desplazamenduak garraibideka sailkatuta



Iturria: Geuk egindakoa, EAEko mugikortasun Azterketaren datuetan oinarrituta.

2008 urtean Bizkaian erabilitako garraibide mota aztertuta, ikus dezakegu ibilgailu propioaren erabilera garraibide publiko guztien erabileraren berdina dela. Horien artean azpimarragarrienak autobusa eta, batez ere, metroa dira. Azken horri dagokionez, esan beharra dago Bilbo Handiko eskualdeetan daudela erabiltzaile gehien.

Garraio publikoaren erabilera Bizkaian 2008-2012



Iturria: Geuk egindakoa, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren datuetan oinarrituta.

Edozein kasutan ere, ikus dezakegu motordun ibilgailuak direla garraio-moduen banaketan garrantzia handiena dutenak, batez ere ibilgailu pribatua. Kontuan izan behar dugu, gainera, ohiko ibilbideetan ez ohi dela auto bakoitzeko bi pertsona baino gehiago izaten, ondorioz, errepideetan pilaketak areagotu egiten dira ibilgailu gehiago dagoelako.

ZER DA MUGIKORTASUN IRAUNKORRA? GARRAIO PUBLIKO MOTAK

Mugikortasun iraunkorra jasota dago dagoeneko Europar Batasunaren 1992ko «*Libro Verde sobre el Impacto del Transporte en el Medio Ambiente*» liburuan. Hala ere, ez dago kontzeptuaren definizio bakar eta adostua, beraz, ñabardurak aldatu egiten dira dokumentuaren arabera. Edozelan ere, garraiobideen erabilera arrazionalagoa lortzera bideratutako ekintzak barne hartzen ditu mugikortasun iraunkorra kontzeptuak, hau da, erregaien kontsumoa murrizteko eta ingurumenean eraginak gutxitzeko neurriak.

Ba al zenekien...








bizikletaz 11 km egiteko, 10 kg metal eta kautxu eta patata bat jateak ematen duen energia besterik ez dela behar? Auto batek, gutxienez, material tona bat eta erregaia behar ditu.

Mugikortasun iraunkorra lortzeko, garapen iraunkorraren jarraibide eta helburuak ezarri behar dira garraioaren esparruan. Horretarako, ezinbestekoa da mugikortasunari zuzen zein zeharka eragiten dioten politiken arteko kohesioa eta koherentzia bermatzea.

Garraio publikoa erabiltzea gako garrantzitsua da, oro har, ibilgailu pribatuak baino efektu negatibo gutxiago eragiten duelako. Ez dago garraio publiko bakarra. Garraio publiko bakoitzak kontuan hartu beharreko ezaugarri ezberdinak dauzka, beraz, horien arteko osagarritasuna izango da mugikortasun iraunkorraren gakoa. Bizkaian honako hauek dauzkagu:



Garraio Publikoa Bizkaian

	ZER DA?	BIZKAIAN	LOTURAK
TRENAK ETA METROA	<p>Jende kopuru handiena garraiatu dezaketen bideak dira, handiak direlako eta bere trenbideak beste garraiobide batek erabiltzen ez dituelako. Geltokien arteko distantzia nahikoa da abiadura handia hartu eta bidaia-denbora murrizteko.</p> <p>Beharrezko azpiegituren mantentze-lanen kostu handiak gorabehera, zaratara eta isuri atmosferiko gutxien eragiten duten motordun ibilgailuak dira, espazio txikiena behar dutenak eta istripu gutxien izaten dutenak.</p>	<p>Bilboko aldiriak trenak puntu oso ezberdinak (Urduña eta Portugalete kasu) lotzen ditu Bizkaiko hiriburuarekin, ibilgailu pribatuak behar duen denbora-tarte antzekoetan. Metroak, 10 urte baino gehiago beteta dituen honetan, erabiltzaile kopuru handiagoa du urtez urte. Funtzionaltasun onaren isla da hori.</p>	  metro bilbao  EuskoTren 
TRANBIA	<p>Garraibide hau tren, metro eta autobusen erdibidean dago, dela garraio dezakeen pertsona kopuruagatik (autobusak baino gehiago baina tren edo metroak baino gutxiago), dela eraikitze eta mantentze kostuengatik (autobusenak baino handiagoak baina tren edo metroarenak baino baxuagoak).</p>	<p>Bilbon oso erabilgarria da, izan ere, oso denbora laburrean lotzen ditu hiriko inguru oso ezberdinak. Irisgarritasun erraza eta hiri-erdigunean egiten duen ibilbidea faktore erakargarriak dira beraz erabiltzeko.</p>	 EuskoTren
AUTOBUSAK	<p>Pertsona kopuru ez oso handiak garraiatzeko egokia da. Joan-etorriak errepidetik egiten dituzenez, ibilbide aukera zabala eskaintzen du (mantentze-gastua murriztu egiten da beste garraibideekin konparatuz gero). Gainera, ibilbide horiek eguneko 24 orduz egin daitezke, eskari-orduen arabera.</p>	<p>Bizkaian autobusaren garraio eskaintza ez da Bilbo Metropolitarrera mugatzen. Bilbon, linea aukera zabalarik esker, tren, metro eta tranbia helden ez diren gunetara helden da autobusa. Eta, gainera, Bilbotik kanpoko udalerririk ezberdinak elkarren artean lotzen dituen autobus lineak ere badaude, baita udalerririk hiriburuarekin lotzen dituztenak ere.</p>	 

Iturria: Geuk egindakoa

Esku-hartzeak Bizkaian

Ba al zenekien...

hirian desplazamendu laburrak egiteko hiri-kontsumoa 20 litrokoa izatera hel daitekeela 100 km bakoitzeko?

Gero

eta ugariagoak dira bizikletak alokatzeko udal-iniziatibak. Uribe Kostako Mankomunitatean, adibidez, onartutako Mugikortasun Planaren jarduera-ildoak da bizikleta ohiko garraiobide gisa orokortzea. Horretarako, 2009an **bizikleta alokairu** zerbitzu publikoa jarri zen mankomunitateko biztanleen eskura. Orain dela gutxi, Bilbon ere antzeko eskeintza martxan jarri da, «**Bilbon Bizi**» lelopean, eta, denbora laburra daraman arren, herritarren eskaera eta interesa aparta izaten ari da.

Online platafor-

mak daude **autoa partekatu** nahi duten pertsonekin harremanetan jartzeko eta bidaia mota ezberdinak egiteko. **Aplikazioak** ere badaude, garraio publiko ezberdinak elkartuta bidaiak programatzeko, ibilgailu pribatua erabiltzea saiheste aldera.

Bizkaiko bidegorri

sarea: Bizikletaz erabiltzeko berariaz egokitutako oinarritzko sarea dago Bizkaian. Sare hori Foru Aldundiak zein udalerrri eta eskualdeek garatutako ekimenetan oinarrituta dago. 2003 urtean sareak 364 km luze zitu; gaur egun Bizkaiko bizikleta-sareak 836 km dauzka dagoneko. artxan.net jarri da



Bizikleta alokairua aukera ekonomiko eta iraunkorra da.

ONDORIOAK

Ibilgailu pribatua gehiegi erabiltzen jarraitzea ez da mugikortasun iraunkorra lortzeko bidea. Garraiobide mota honek sortzen dituen arazoak kutsadura atmosferikotik harago doaz, eta, adibidez, hirigintza plan-gintzan eragina dauka. Hori dela eta, beharrezkoa da ekintza zehatzetan islatutako mugikortasun iraun-korrerako planak ezartzea. Horretarako, udalerriek Tokiko Agenda 21 daukate. Badaude, gainera, aurretik ere emaitza oso positiboak izan dituzten esperientziak, eta horiek erreferente izan behar dute gure ga-rraiatzeko moduan ingurumenari dagokion aldagaia barne hartzeko eta, geure desplazamenduetan ere, iraunkorrago izatea lortzeko.

GIDA PRAKTIKOA

GARRAIO PUBLIKOAREN ORDUTEGIAK

Autobusa

- Bizkaibus
- ALSA
- BilmanBus
- Bilbobus
- La Unión
- Transportes Pesa

Metroa

- Metro Bilbao

Trena

- Eusko Tren
- RENFE – Bilbo inguruneak
- FEVE

Hegazkina

- Bilboko aireportua

Moveuskadi – Mugikortasun Iraunkorra

- Moveuskadi – Mugikortasun Iraunkorra

Bizikleta-mailegurako zerbitzuak

- Bilbon bizi
- Bizikleta-mailegurako puntuak Bilbon
- Getxo Bizi
- Bizimeta (Uribe Kosta)

Bizkaiko bizikleta-bideen (bidegorri) sarea

- Bizkaiko bizikleta-bideen (bidegorri) sarea

Mugikortasun partekatua (kotxea partekatzea)

- Bilbao Compartir.org
- Compartir
- Amovens
- Bla Bla Car
- CompartirCoche
- Carpooling
- Roadsharing

Car-Sharing (ibilgailuak alokatzeko beste mo-dalitate bat)

- Ukanauto (Uribe Kosta)
- Auzokar (Areatza)
- Euskocarsharing
- Clickcar
- Ibilkari
- Ibilek (auto elektrikoak)

Ibilgailuen karga elektrikoak

- Ibilgailu elektrikoak kargatzeko Sare Publikoa

GEHIAGO JAKITEKO

- EAEko Mugikortasun Azterketa 2011
- EUSTAT.
- Garraio Publikoen Nazioarteko Batasuna (UITP).
- Ekologistak Martxan.
- Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.
- «Movilidad sostenible. De la teoría a la práctica». David Hoyos eta David Guillamón.

Euskadi

- Garraioaren Zuzendaritza Plana 2002-2012
- Bide Segurtasunaren Plan Estrategikoa 2010-2014
- Mugikortasun Iraunkorraren Zuzendaritza Plana 2020
- Irigarritasun iraunkorraren praktika onak
- Mugikortasun Iraunkorraren Udal Planak egiteko gida praktikoa

Bizkaia

- Bizikletazko Zuzendaritza Plana
- Bizikletazko Azpiegituren Foru Sarearen Foru Araua
- Bizikletazko Ibilbideak Diseinatzeko Gidaliburu Teknikoa eta Gida Praktikoa